**Ane Beitia: "ELGOIBARTARREI DUELA 8 URTE EMAN GENIEN HITZA BETE DUGU"**

| 2-4

**70 milioi 4 urtetan elgoibartarren ongizatea bermatzeko.** / 12 proyectos estratégicos y más de 100 proyectos ejecutados.

| 5

# *ELGOIBARKO UDALAK LEGEALDIKO PROIEKTUEN KONTU EMAN DU.*

# “ELGOIBARTARREI DUELA 8 URTE EMAN GENIEN HITZA BETE DUGU”

«Hemos cumplido la promesa que dimos a las y los elgoibarreses hace 8 años»



"Tenemos ahora un municipio mejor, que avanza, sin dejar a nadie atrás"

**Zer balorazio egiten duzu zure alkatetzapeko bi legealdiez?**

Balorazioa positiboa da. Ez dira urte errazak izan: Covid-19aren pandemia 2020an eta Ukrainaren inbasioak eragindako prezioen gorakada ostean. Zuzenki eragin digute kudeaketan. Fokoak mugitzen joan behar izan dugu unean-unean baina noranzkoa argia izan da: 2016-19 eta 2020-23 legealdi planetan jasotako proiektu guztiei bide ematea, eta ia guztiak gauzatu ditugu jada. Herri hobe bat dugu orain, aurrera doana, herritarrekin bat, inor atzean utzi gabe.

**Kudeaketa zorrotza eta gardena izan dizu lehentasun.**

Hala da. Helburu horrekin udal kudeaketa eraginkortuko zuen egitura jarri genuen abian aurreko legealdian, eta honetan egonkortzea lortu dugu. Askoz ere transbertsalagoa da orain Udala, sailen arteko lankidetza areagotu da eta horrek herritarrei erantzun hobea ematea ekarri digu. Legealdi Plana hiru arlo nagusitan banatu genuen: Herritarrak, Antolakuntza eta Lurraldea. Aipaturiko hiru arlo horietan 12 helburu estrategiko eta ehunka ekintza zehatz errealitate bihurtzea erabaki genuen, eta ia guztiak gauzatu ditugu.

1. Elgoibar euskalduna eta dinamikoa
2. Bakearen, bizikidetzaren eta berradiskidetzearen kultura bultzatuko duena.
3. Aukera berdintasuna oinarritzat hartuta, pertsona guztien partaidetza eta ekintzailetza bermatuko dituena.
4. Natur ingurunea eta ingurumena zainduko dituena.
5. Hirigintzaren ikuspegitik, herri irisgarria, erosoa, atsegina eta iraunkorra izango dena.
6. Aberastasun ekonomikoa eta enplegua sortzen jarraituko duena.
7. Prestakuntza eskaintza anitzaren bitartez gure herritarren kualifikazioa bultzatuko duena.

Gertutasunez jardun dugu helburu hauek egikaritzeko herritar zein eragileekin elkarlanean eta horrek udal jarduna ikaragarri aberastu eta osatu du. Horren adibide da, esaterako, herritarrak udalarekin harremanetan jartzeko eman diren pausu guztiak Herritarren Arreta Zerbitzua sortuz edota udal komunikazio esparrua indartuz, hainbaten artean. Entzun eta egin, entzunez.

**Zer nabarmenduko zenuke azken bi legealdiez?**

Uste dut esparru askotan asko egin dugula aurrera. Lila sortu dugu berdintasunean sakontzeko; Olaizagako igerileku berriak kirol alorrean azpiegitura egokiak eskainiz; irisgarritasunean asko hobetu dugu Urazandi, Errotaberri edota San Rokeko igogailuekin; Kulturaren aldeko apustua oso garrantzitsua izan da eta horren adibide da Aita Agirre kulturgunea...

Eta bereziki nahiko nuke aipatu Errezabal Egoitza eta Gizarte Zerbitzuen Mapa. Errezabal egoitza oso proiektu konplexua da eta asko egin dugu aurrera. 2024an hasiko dira obrak eta datorren legealdian errealitate izango da. Elgoibar pertsonarengan oinarritutako herria da, babes maila ia guztiak eskaintzen dituena herrian bertan. Horrek herritarrei lasaitasuna eta segurtasuna eskaintzen diete euren bizi proiektua garatzeko.

**Errezabal, El Pilar ikastetxeko orubean kokatuko den egoitza, jaiotzen ikusi duzun proiektua izan da.**

Aspalditik identifikatutako behar honi erantzuteko lan asko egin dut. Asko. Ezinbesteko proiektua da ez soilik Elgoibarrentzako, eskualdearentzako eta Gipuzkoarentzako ere. Gure nagusiak gure herria eraiki duten pertsonak dira; eurei esker gara egun garena. Horrek merezi du euren aldeko politika publiko indartsuak sustatzea. Errezabal da helburu horretan proiektu garrantzitsu bat, baina Gizarte Zerbitzuen mapa osoarekin batera: etxez-etxeko laguntza, eguneko zentroa, sasoian programa... Herri eragile sozialak ere berebizikoak dira. Errezabalek kualitatiboki zein kuantitatiboki herritarrei zerbitzu integrala eskainiko die eta gainera, emango digu aukera zerbitzu eta ekimen gehiagorekin osatzeko.

**Mapa horretan ere kokatzen da anbulategi berria.**

Bai. Gure lan lerro nagusia izan da beti herritarrei, alor orotan, ahalik eta azpiegitura egokienak eskaintzea. Kasu honetan, ikusten genuen egungo anbulategiak bazuela hobetzekorik eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin elkarlanean proiektua garatu dugu. Datorren legealdian errealitate izango da eta egungo anbulategiak uzten duen espazioak herritarren etxebizitza sozialen beharrak asebetetzeko aukera emango digu.

**Zerbait uzten duzu egiteke?**

Bai. Udalaz gaindiko erabaki batzuen zain, Maltzagako bidegorriko komuna erosia dugu baina ezartzeko lanak burutzeke ditugu. Datozen hilabeteetan datorren udal gobernuak egiteko aukera izango du. Errezabal proiektuaren obra ere hasita utzi nahiko nuke; gutxi barru ekingo zaio. Oso proiektu konplexua da eta testuinguru ekonomikoak ez digu gehiegi lagundu. Gainontzean, pozez esan dezaket, gure ia proiektu guztiek argia ikusi dutela.

**Garbiketa eta mantenimendu lanak areagotzea eta herria irisgarria eta atsegina izatea etengabeko erronka al da?**

Bai noski. Are gehiago Elgoibar bezalako herri aldapatsu batean. Irisgarritasuna hobetzen diru asko inbertitu dugu, espaloiak kopontzen, kaleetan ez labaintzeko tratamendua ematen, igogailu publikoak ezarri eta mantentzen e.a. Kalea elkargunea da eta publikoa den eta partekatzen dugun hura denok zaindu beharko genuke.

**Alkate makila gaur hartuko bazenu, zerbait ezberdin egingo zenuke?**

Seguraski bai. Ikasten joan naizelako, esperientzia hartzen. Baina herritarrekin hartutako konpromisoaren zama kentzen lehenengo egunetik hasiko nintzateke. Lanerako hautatu gintuzten eta egin dugu, gogor gainera. Erabaki batzuk, ziurrenik, era batera edo bestera hartuko nituzke orain, bereziki pandemia garaiko ziurgabetasunak sortutakoak, baina irudi globala ona da: Elgoibar aurrera doa, eta herriarekin bat elgoibartarrak. Unerik zailenetan elkarlanean jardun dugu, era solidarioan, eta herria garatzen jarraitu dugu. Elgoibartarrak gara gure herriaren altxorrik preziatuena eta hori zaintzen ahalegindu naiz. Esker hitzak soilik ditut herritarrentzako.

\+ + + +

" Errezabal es un proyecto muy complejo y hemos avanzado mucho. Las obras comenzarán en 2024 y será una realidad en la próxima legislatura. Elgoibar es un municipio que centra todos sus esfuerzos en la persona"

\+ + + +

***¿Qué valoración hace de las dos legislaturas bajo su alcaldía?***

La valoración es positiva. No han sido años fáciles: la pandemia de la Covid-19 en 2020 y la escalada de precios provocada por la invasión de Ucrania ahora. Nos han afectado directamente en la gestión. Hemos tenido que ir moviendo los focos en cada momento, pero la directriz ha sido clara: dar paso a todos los proyectos recogidos en los planes de legislatura 2016-19 y 2020-23, y prácticamente todos los hemos ejecutado ya. Tenemos ahora un municipio mejor, que avanza, sin dejar a nadie atrás.

***Has tenido como prioridad una gestión rigurosa y transparente.***

Así es. Con este objetivo pusimos en marcha en la pasada legislatura una estructura de gestión municipal eficaz. El Ayuntamiento es mucho más transversal ahora, en el que colaboran de forma natural y directa los diferentes departamentos. Dividimos el Plan de Legislatura en tres grandes áreas: Ciudadanía, Organización y Territorio. En estas tres áreas decidimos hacer realidad 12 objetivos estratégicos y cientos de acciones concretas, y prácticamente todas las hemos llevado a cabo.

1. Elgoibar euskaldun y dinámico

2. Que impulse una cultura de paz, convivencia y reconciliación.

3. Que garantice la participación y el emprendimiento de todas las personas desde la igualdad de oportunidades.

4. Preservar el medio natural y el medio ambiente.

5. Desde el punto de vista urbanístico, un municipio accesible, cómodo, amable y sostenible.

6. Que siga generando riqueza económica y empleo.

7. Que impulse la cualificación de nuestros jóvenes a través de una oferta formativa diversa y de calidad.

Hemos colaborado activamente con la ciudadanía y los agentes para llevar a cabo estos objetivos, lo que ha enriquecido y complementado enormemente la actividad municipal. Es el caso, por ejemplo, de todos los pasos que se han dado para poner en contacto a la ciudadanía con el Ayuntamiento mediante la creación del Servicio de Atención Ciudadana o reforzando el ámbito de comunicación municipal, entre otros. Escuchar y hacer, escuchando.

***¿Qué destacaría de las dos últimas legislaturas?***

Creo que en muchos ámbitos hemos avanzado mucho. Hemos creado Lila para profundizar en la igualdad; las nuevas piscinas de Olaizaga ofreciendo infraestructuras deportivas adecuadas; hemos mejorado mucho en accesibilidad con los ascensores de Urazandi, Errotaberri o San Roke; la apuesta por la cultura ha sido muy importante y un ejemplo de ello es el centro cultural Aita Agirre...

Y me gustaría especialmente mencionar la Residencia Errezabal y el Mapa de Servicios Sociales. Errezabal es un proyecto muy complejo y hemos avanzado mucho. Las obras comenzarán en 2024 y será una realidad en la próxima legislatura. Elgoibar es un municipio que centra todos sus esfuerzos en la persona, que ofrece casi todos los niveles de protección sin necesidad de moverse. Eso ofrece tranquilidad y seguridad a la ciudadanía para desarrollar su proyecto de vida.

***Errezabal, la residencia que se ubicará en el solar del colegio El Pilar, ha sido un proyecto que has visto nacer.***

He trabajado mucho por este proyecto. Mucho. Es un proyecto imprescindible no sólo para Elgoibar, también para la comarca y Gipuzkoa. Nuestros mayores son las personas que han construido nuestra localidad; gracias a ellos y ellas somos lo que somos hoy en día. Esto merece la pena promover políticas públicas fuertes a su favor. Errezabal es un proyecto importante en este objetivo, pero junto con el mapa completo de los Servicios Sociales: ayudas domiciliarias, centro de día, Sasoian... Errezabal ofrecerá tanto cualitativa como cuantitativamente un servicio integral a la ciudadanía y, además, nos permitirá complementarlo con más servicios e iniciativas.

**"Elgoibartarrak gara gure herriaren altxorrik preziatuena eta hori zaintzen ahalegindu naiz. Esker hitzak soilik ditut herritarrentzako"**

***En este mapa también se sitúa el nuevo ambulatorio.***

Sí. Nuestra principal línea de trabajo ha sido siempre ofrecer a la ciudadanía, en todos los ámbitos, las infraestructuras más adecuadas. En este caso, veíamos que el actual ambulatorio tenía algo que mejorar y en colaboración con el Departamento de Salud del Gobierno Vasco hemos desarrollado el proyecto. La próxima legislatura será una realidad y el espacio que deja el actual ambulatorio nos permitirá satisfacer las necesidades de vivienda social de las y los elgoibarreses.

***¿Deja algo pendiente?***

Sí. A la espera de algunas decisiones supramunicipales, ya hemos comprado el baño público del bidegorri de Maltzaga, pero queda pendiente su implantación. En los próximos meses el próximo gobierno municipal tendrá la oportunidad de hacerlo. También me gustaría dejar iniciada la obra del proyecto Errezabal, que se acometerá en breve. Es un proyecto muy complejo y el contexto económico no nos ha ayudado demasiado. Por lo demás, puedo decir con alegría que casi todos nuestros proyectos han visto la luz.

***¿Aumentar las tareas de limpieza y mantenimiento y hacer de Elgoibar un municipio accesible y agradable es un reto constante?***

Claro que sí. Más aún en una localidad como Elgoibar. Hemos invertido muchos recursos en mejorar la accesibilidad, en renovar aceras, en apricar tratamientos antideslizantes en las calles, en instalar y mantener ascensores públicos, etc. La calle es un punto de encuentro y aquello que es público y compartimos deberíamos cuidarlo entre todos y todas.

***Si cogieras el bastón de alcalde hoy, ¿harías algo diferente?***

Probablemente sí. Porque he ido aprendiendo, adquiriendo experiencia. Pero empezaría por quitarme el lastre del compromiso adquirido con la ciudadanía desde el primer día. Nos eligierón para trabajar y lo hemos hecho, de forma constante. Seguramente algunas decisiones las tomaría ahora de una u otra manera, pero la imagen global es buena: Elgoibar avanza, y también las y los elgoibarreses. En los momentos más difíciles hemos colaborado de forma solidaria. Las y los elgoibarreses somos el tesoro más preciado de nuestro municipio y nos hemos esforzado por cuidarlo. Sólo tengo palabras de agradecimiento para la ciudadanía.



# KONTU EMATEA

## 70 MILIOI 4 URTETAN ELGOIBARTARREN ONGIZATEA BERMATZEKO

## 70 MILLONES EN 4 AÑOS PARA GARANTIZAR EL BIENESTAR DE LAS Y LOS ELGOIBARRESES




*4 urtetan guztira • Total en 4 años*



# ANTOLAKUNTZA ALORRA

## AMBITO DE ORGANIZACIÓN

**4 urtean** **394.949 €** **en 4 años**

Udal-aurrekontu osoaren **%28,2** del total de presupuesto municipal

Arlo horretan, helburu nagusia izan da udalaren antolaketa garai berrietara egokitzen laguntzea, herritarren eskaerei modu eraginkorragoan eta efizienteagoan erantzun ahal izateko, eskaintzen diren zerbitzuen kalitatea bermatzeko eta, hori guztia, kudeaketa ekonomiko-finantzario zorrotz baten bidez.

Arlo horretan, helburu nagusia izan da udalaren antolaketa garai berrietara egokitzen laguntzea, herritarren eskaerei modu eraginkorragoan eta efizienteagoan erantzun ahal izateko, eskaintzen diren zerbitzuen kalitatea bermatzeko eta, hori guztia, kudeaketa ekonomiko-finantzario zorrotz baten bidez.

## 1. Antolaketa sinplifikatzea.

### La simplificación de la organización.

Udalaren jarduera hiru informazio-batzorderen eta lan-esparruren inguruan antolatu da, honako izen eta eskumen hauekin:

Se ha organizado la actividad el Ayuntamiento en torno a únicamente tres comisiones informativas y ámbitos de trabajo con las siguientes denominaciones y competencias:



### *Herritarrak*

*Ciudadanía*

Gizarte-zerbitzuak, kultura, gazteria, kirola, genero-berdintasuna, euskara

Servicios sociales, cultura, juventud, deporte, igualdad de género, Euskera...



### *Lurraldea*

*Territorio*

Udal-ekipamendu, azpiegitura eta instalazioekin, hirigintzarekin, ingurumenarekin, hiri-hondakin solidoen bilketa eta tratamenduarekin zerikusia duena.

Lo relacionado con los equipamientos, infraestructuras e instalaciones municipales, urbanismo, medio ambiente, recogida y tratamiento de residuos sólidos urbanos.



### *Antolaketa*

*Organización*

Udalaren zerbitzura dauden pertsonekin zerikusia duen guztia, udal-zerbitzu publikoak emateko laguntza legala, ekonomiko-finantzarioa eta administratiboa, udaltzaingoa (trafikoa, bide-segurtasuna, herritarrak, animaliak), parte-hartzea eta garapen ekonomikoa.

Todo lo relacionado con las personas al servicio del ayuntamiento, el soporte legal, económico-financiero, y administrativo para la prestación de los servicios públicos municipales, la Policía local, (tráfico, seguridad vial, ciudadana, animales), participación y desarrollo económico.





## 2. Udalaren ohiko jarduera koordinatzeko talde bat sortzea

### Creación de un equipo de coordinación de la actividad ordinaria del ayuntamiento



Legegintzaldi honetan lantalde bat osatu da Udaleko erantzukizun politiko eta teknikoa duten pertsonekin, "Zuzendaritza Taldea" izenekoa.

En esta legislatura se ha conformado un equipo de trabajo integrado con las personas con responsabilidad política y técnica del Ayuntamiento que se denomina "Zuzendaritza Taldea".

## 3. Ekonomia -eta finantza- kudeaketa hobetzea

### La mejora de la gestión económico-financiera




**a.**

Urte hauetan, diru-sarreren optimizazioa bermatzeko eta, aldi berean, gastuaren kudeaketa zorrotza bermatuko duen sistema bat zaintzeko prozedurak diseinatu eta txertatu dira.

Durante estos años se han diseñado e incorporado procedimientos para garantizar la optimización de los ingresos y, al mismo tiempo, velar por un sistema que garantice una rigurosa gestión del gasto.

**b.**

Gaur egun, udalaren zorpetzea o eurokoa da, azken urteotan izandako gorabehera guztiak izanda ere.

Hoy el endeudamiento del ayuntamiento es de o euros a pesar de todas las circunstancias vividas en estos últimos años.




**c.**

Udalak, gardentasunean eta herritarrekiko komunikazioan aurrera egiten jarraitzeko, modu bihilabetekarian partekatzen du, Elgoibar Udal Aldizkariaren bitartez, haren kudeaketari buruzko informazioa. Era berean, udalaren webgune berrituaren eta sare sozialen bidez ere egiten du.

El ayuntamiento con el fin de seguir avanzando en transparencia y comunicación con la ciudadanía comparte de forma bimestral, a través de la Revista Elgoibar Udal Aldizkaria, de manera detallada la información relativa a su gestión. De igual modo lo hace a través de la renovada web municipal y las redes sociales.

# 4. Administrazio elektronikoa abian jartzea.

## Puesta en marcha de la Administración electrónica.




Elgoibar

Horretara behartuta dauden enpresa eta profesional guztiak udalarekin elektronikoki erlazionatu ahal izango direla bermatzea lortu da, baita, behartuta egon gabe ere, hala nahi duten pertsona fisikoak ere. Hala ere, hala nahi duten pertsona guztiei aurrez aurreko arreta bermatzen jarraituko da.

Se ha conseguido garantizar que todas las empresas y profesionales, obligados a ello, se puedan relacionar electrónicamente con el ayuntamiento, así como aquellas personas físicas, que, sin estar obligadas, así lo deseen. No obstante, se continúa garantizando, en todo caso, la atención presencial a todas aquellas personas que así lo escojan.

# 5.Merkataritza eta ostalaritzako laguntzak.

## Ayudas al comercio y la hostelería.




Horretara behartuta dauden enpresa eta profesional guztiak udalarekin elektronikoki erlazionatu ahal izango direla bermatzea lortu da, baita, behartuta egon gabe ere, hala nahi duten pertsona fisikoak ere. Hala ere, hala nahi duten pertsona guztiei aurrez aurreko arreta bermatzen jarraituko da.

Se ha conseguido garantizar que todas las empresas y profesionales, obligados a ello, se puedan relacionar electrónicamente con el ayuntamiento, así como aquellas personas físicas, que, sin estar obligadas, así lo deseen. No obstante, se continúa garantizando, en todo caso, la atención presencial a todas aquellas personas que así lo escojan.



ANTOLAKUNTZA ALORRA

# 6. Udalaren Giza Baliabideen Plana.

## Plan de Recursos Humanos del Ayuntamiento



Udalaren Giza Baliabideen Plana garatu da, Udalaren lana antolatu den hiru arloei erantzuten dien organigrama bat ezarriz, lanpostuak deskribatuz eta egonkortuz, gaur egun ematen diren zerbitzuen kalitatea mantentzen dela bermatzeko.

Se ha desarrollado el Plan de Recursos Humanos del Ayuntamiento, estableciendo un organigrama que responde a las tres áreas en las que se ha organizado el trabajo del Ayuntamiento, mediante la descripción de los puestos de trabajo y la estabilización de los mismos, para garantizar el mantenimiento de la calidad de los servicios actualmente prestados.

# 7.Herritarrei Arreta Emateko Zerbitzua (HAZ).

## Servicio de Atención a la Ciudadanía (SAC).




Herritarrei Arreta Emateko Zerbitzua (HAZ) indartu da, udaletxera sartzeko gune integral gisa, eta kutxazain bat jarri da, izapideak arreta-ordutegitik kanpo ere egin ahal izateko.

Se ha reforzado el Servicio de Atención a la Ciudadanía (SAC), como punto integral de acceso abierto al Ayuntamiento, dotando de un cajero que posibilita realizar trámites incluso fuera del horario de atención.

# LURRALDE ALORRA

## AMBITO DE ORGANIZACIÓN

4 urtean **30.529.344 €** en 4 años

**%41**

Udal-aurrekontu osoaren

del total de presupuesto municipal

Herritarrei gure herriaren erabilera eta gozamena bermatzea, garbiketa-baldintza egokietan, eta udalaren espazioak eta instalazioak mantentzea.

**Garantizar a la ciudadanía el uso y disfrute de nuestro pueblo en unas adecuadas condiciones de limpieza, mantenimiento de los espacios y las instalaciones municipales.**

### BIDE PUBLIKOAN ZOLADURAK BERRITZEA. ESPALOIAK, ZUBIAK ETA ASFALTOZKO GAINAZALAK BERRITU DITU.

**Renovación de pavimentos en la vía pública. Se han renovado aceras, puentes y superficies de asfalto.**










• ***San Roke eta Trenbide kaleetako zoladura aldatu da, 726 $m^2$-ko espaloiko azaleran, eta espaloiaren zabalera handitu da kaleetan, adibidez, Bernardo Ezenarron.***

*• Se ha sustituido el pavimento en las calles San Roke y Trenbide, en una superficie de726$m^2$ de acera, y se ha aumentado el ancho de la acera en calles como por ejemplo en Bernardo Ezenarro.*

• ***Tratamendu irristagaitzak aplikatu ditu hainbat puntu eta kaletan.***

*• Se han aplicado tratamientos antideslizantes en numerosos puntos y calles.*

• ***Udalerriko zubi eta pasabideei dagokienez, bi zubien eta pasabide baten zoladura ordeztu da.***

*• En cuanto a los puentes y pasarelas del municipio, se ha sustituido el pavimento de dos puentes y de una pasarela.*







• ***San Roke kalea eta Trenbide kalea lotzen dituen trenbidearen gaineko pasabidea berritzea.*** */ Renovación del paso sobre la vía del tren que une la calle San Roke con la calle Trenbide.*

• ***Hiri-lurzoruan 4.666 $m^2$ galtzada berritu dira, eta 4.367 $m^2$ landa-lurzoruan.*** */ Se han renovado 4.666 $m^2$ de calzada en suelo urbano, y 4.367 $m^2$ en suelo rural.*




### HAUR-PARKEAK BERRITZEKO KANPAINA.

**Campaña de renovación de parques infantiles.**



### PANDEMIAN GARBIKETA BEREZIA EGITEKO ETA AUZOETAKO ESPALOIEN GARBIKETA INDARTZEKO PLANA.

**Plan de limpieza especial durante la pandemia y refuerzo de limpieza de aceras en barrios**




### LINEA BERDEA APLIKAZIOA BULTZATZEA.

**Impulso de la aplicación Línea Verde.**

• ***Udalaren ekimena, herritarren arazoak zuzenean ezagutzeko, entzute aktiboaren bidez.***

*• Una iniciativa del ayuntamiento para poder conocer directamente, a través de la escucha activa, los problemas de la ciudadanía.*

## IRISGARRITASUNA ETA MUGIKORTASUNA

**Accesibilidad y movilidad**

### HIRI-INGURUNEAN:

**En el entorno urbano.**









• ***Eskailera mekanikoen ordez igogailuak jartzea: Urazandi eta Errotaberri plaza.***

*• Sustitución de escaleras mecánicas por ascensores: Urazandi y Errotaberri plaza.*

• ***Igogailu publiko berria San Roken.***

*• Nuevo ascensor público en San Roke.*

• ***Kiroldegiko estalkiko aparkaleku berria. Esku-hartze honek izan duen aurrekontua kiroldegia handitzeko obren kostu osoaren barruan dago, eta 2.820.215 euroko aurrekontua izan du.***

*• Nuevo parking en cubierta del polideportivo. El presupuesto con el que ha contado esta intervención esta englobado en el coste total de las obras de ampliación del polideportivo que ha contado con un presupuesto de 2.820.215€.*







• ***Udalbus zerbitzua.*** */ Servicio Udalbus.*

• ***Urazandi eta Kalamua bideen konexioa.*** */ Conexión de los viales Urazandi y Kalamua.*

## LANDA-INGURUNEAN:

En el entorno rural.




***• Baserrietako seinaleak hobetu dira eta postontziak ordezkatu dira.***

*• Se ha mejorado la señalización de los caseríos y se han ido sustituyendo los buzones.*




***• Segurtasuna hobetu du, eta gune arriskutsuenetan biondak jarri dira***

*• Se ha mejorado la seguridad colocando biondas en los puntos más peligrosos.*

***• Udalerriko auzoetako ekipamenduan hobekuntzak eta konponketak egin dira.***

*• Se han realizado mejoras y reparaciones en el equipamiento de los varios barrios del municipio.*

**24.774,50 €**

***• Bideen konponketak, behar diren puntuetan harri-lubetak egindа, eta errodadura-azalera hobetzea malda handiko tarteetan.***

*• Reparación de las deficiencias existentes en los caminos, con ejecución de escolleras en los puntos necesarios, y mejora de la superficie de rodadura en los tramos con fuertes pendientesa.*

**547.500 €**

## ERAIKINAK ETA UDAL INSTALAZIOAK

### Edificios y las instalaciones municipales

### BOLATOKIKO PARKEA:

El parque de Bolatoki.




### SIGMA ETA ALTZOLA AUZOETAKO EKIPAMENDU SOZIALA HOBETZEA:

Mejoras en el equipamiento social de los barrios Sigma y Altzola.




***• Eulogio Estartako (Sigma auzoa) erabilera sozialeko eraikinean leiho berriak jarri ziren.*** *Se ha mejorado la señalización de los caseríos y se han ido sustituyendo los buzones.*




***• Altzolako lokal soziala + teilatua eraberritzea.*** *Reforma del local social de Altzola + tejado.*

### ELKARTEEN INSTALAZIOAK ETA LOKALAK HOBETZEA:

Mejora de las instalaciones y locales de asociaciones:



***• Xake-lokala eraberritzea eta handitzea*** */ Reforma y ampliación del local de ajedrez.*



***• Ludotekarako kokapen berria.*** */Nuevo emplazamiento para la ludoteca.*

***• Eskuz elkartearentzako lokal berria.***

*• Nuevo local para la asociación Eskuz.*

***• Danborradarako lokal berria.*** */ Nuevo local para la tamborrada.*





## HIRI-BERRONERATZEA ETA HIRI-BIRGAITZEA BULTZATZEA

### Impulso de la regeneración urbana y rehabilitación urbana




***• Partikularrentzako dirulaguntza lerro bat onartzea, komunitateetan igogailuak birgaitzeko eta instalatzeko.***

*• Aprobación de una línea de subvención a particulares para la rehabilitación e instalación de ascensores en comunidades.*




***• Pedro Muguruzaren eskola zaharrak eraistea eta ingurunea birsortzea.***

*• Demolición de las antiguas escuelas de Pedro Muguruza y regeneración del entorno.*




***• Etxebizitza hutsaren diagnostikoa eta gazteak alokatzeko dirulaguntza lerroa. 110.000 euroko aurrekontua bideratu da, eta horri esker, 46 gazteri lagundu zaie etxebizitza alokatzen.***

*• Diagnóstico de la vivienda vacía y línea de subvención para alquiler de jóvenes. Se ha destinado un presupuesto de 110.000 euros que ha permitido ayudar a alquilar la vivienda a 46 jóvenes.*




***• 3 milioi euro Sigmako etxebizitzak osorik birgaitzeko laguntzetan. Auzoko bizilagunekin batera idatzitako proiektuari jarraipena emanez, 1-9 atariko obrei ekingo zaie.***

*• Sustitución de escaleras mecánicas por ascensores: Urazandi y Errotaberri plaza.*

## ENERGIA-ERAGINKORTASUNA HOBETZEA

### Impulso de la regeneración urbana y rehabilitación urbana




***• Argiteria publikoaren ildo estrategikoan, urtero ordeztu dira argiteria publikoko argiak.***

*• En la línea estratégica de alumbrado público, anualmente se han reemplazado luminarias del alumbrado público.*



***• Zerbitzu Energetikoen (ESE) kontratua 2022an ezartzea. Argiak birjartzeko esku-hartze masiboa (argiteria publikoaren % 60), tele-kudeaketako eta monitorizazio energetikoko sistema barne. % 52ko energia aurreztea. 1.1 milioi euroko inbertsioa guztira.***

*• Implantación del contrato de Servicios Energéticos (ESE) en 2022. Intervención masiva de reposición de luminarias (60% del alumbrado público) incorporando sistema de tele gestión y monitorización energética. Ahorro energético del 52%. Inversion total de 1.1 millones de euros.*




***• Plaka fotovoltaikoak instalatzea udal--ekipamenduetan. Eguzki-instalazio fotovoltaikoa, autokontsumorako sarera konektatua eta Olaizagako kiroldegiko estalkian soberakinak konpentsatzeko erabiltzen dena.***

*• Instalación placas fotovoltaicas en equipamientos municipales. Instalación solar fotovoltaica conectada a red para autoconsumo y acogido a compensación de excedentes en la cubierta del polideportivo de Olaizaga.*

• ***Urazandiko haurreskolako instalazioak hobetzea aerotermiaren bidez. 18.029 €. Berokuntzan % 60 energia aurreztea.***

• *Mejora de las instalaciones de la Haurreskola de Urazandi mediante aerotermia. 18.029€. Ahorro energético del 60% en la calefacción.*

**18.029 €**

•***Udal eraikinen auditoria eta energia--ziurtagiria.***

• *Auditoria y certificado energético de edificios municipales.*

**16.940 €**

## ZERBITZU-SAREA HOBETZEA

### Mejora de la red de servicios




• ***Saneamendu-kolektorea. Mendarotik Apatriz kaleko araztegira (Arriaga industrialdea) doan saneamendu-bilketarako kolektoreari ekiteko lanak.***

• *Colector saneamiento. Tareas para acometer el colector para la recogida de saneamiento desde Mendaro hasta la depuradora ubicada en Apatriz kalea (Polígono industrial Arriaga).*




• ***Euskotren. Elgoibar-Alzola bikoizketa, industrialdeko sarrera hobetzeko.***

• *Euskotren. Desdoblamiento Elgoibar--Alzola para mejorar galibo de entrada al polígono.*



• ***Bidegorriak. Trenbidea bikoiztuta eta tunel bat eraikita, egungo trenbideak askatuko dira, Altzola eta Elgoibarko gainerakoa lotuko dituen bidegorri-sarearen etorkizuneko jarraipena egiteko.***

• *Bidegorris. Con el desdoblamiento de las vías del tren y la construcción de un túnel, se liberan las actuales vías donde se proyecta la futura continuación de la red de bidegorri que comunicara Altzola con el resto de Elgoibar.*



• ***Bidegirekin elkarlanean panel akustikoak instalatzea. Erretsundi eta Arregitorre auzoetan kalitate akustikoa hobetzeko asmoz, Bidegik panel akustikoak jarri ditu autobidearen bi aldeetan.***

• *Instalación paneles acústicos con Bidegi. Con el objetivo de mejorar la calidad acústica en los barrios de Erretsundi y Arregitorre, Bidegi han instalado paneles acústicos a ambos lados de la autopista.*



• ***King Kongeko pasabidea. Oinezkoentzako pasabidearen irisgarritasuna hobetzeko asmoz, URA Uraren Euskal Agentziarekin uholde-arriskuari eta irisgarritasunari buruz eskatzen diren parametroak betetzen dituen pasabidearen soluzioa lantzen ari gara.***

• *Pasarela del King Kong. Con el objetivo de mejorar la accesibilidad de la pasarela peatonal, se está trabajando con la Agencia Vasca del Agua URA la solución de pasarela que cumpla los parámetros exigidos en materia de inundabilidad y accesibilidad.*





# HERRITARTASUN ALORRA

## AMBITO DE ORGANIZACIÓN

4 urtean **22.920.809 €** en 4 años

Udal-aurrekontu osoaren **%30,8** del total de presupuesto municipal

### Elgoibarren bizi diren pertsonen gizarte-babesa bermatzea

### Garantizar la protección social de las personas que viven en Elgoibar

Etxez etxeko laguntza. 2019 eta 2022 bitartean artatutako pertsonen kopurua = 322. Legegintzaldi honetan 893.000 euroko gastua egin da. 2022ko gastua 250.000 eurokoa izan zen eta 2023ko ekitaldirako aurrekontua 290.000 eurokoa.

Ayuda domiciliaria. Número de personas atendidas entre 2019 y 2022 = 322. El gasto realizado en esta legislatura asciende a 893.000 euros. El gasto del año 2022 fue de 250.000 euros y el presupuesto para el ejercicio 2023 es de 290.000 euros

## ZERBITZU BERRIAK ABIAN JARTZEA, HALA NOLA:

### Puesta en marcha nuevos servicios como:




• ***Adineko ezinduentzako eguneko zentroa, 365 eguneko arretarekin.***

• *Centro de día para personas mayores dependientes con atención los 365 días.*



• ***Mendaroko udalerriko adinekoentzako etxebizitza babestuak.***

• *Viviendas tuteladas para personas mayores ubicadas en el Municipio de Mendaro.*

• ***Indarkeriaren biktima diren emakumeentzako etxebizitza.***

• *Vivienda para mujeres víctima de violencia.*

• ***Bazterketa-arriskuan dauden pertsonentzako etxebizitzak, bai udalerri--mailan, bai eskualde-mailan.***

• *Viviendas para personas en riesgo de exclusión tanto a nivel municipal como comarcal.*

• ***Eskualdeko neguko dispositiboa etxerik gabeko pertsonentzat. Eta pandemia garaian konfinamendu garaian ateak ireki zituen berariazko bat.***

• *Dispositivo invernal comarcal para personas sintecho. Y uno específico que abrió sus puertas durante la época de confinamiento durante la pandemia.*

• ***Adinekoentzako autonomia sustatzeko zerbitzu berria.***

• *Nuevo servicio de promoción de la autonomía para personas mayores.*



**• Zahartze aktiboa izan da beste lehentasunetako bat, eta zahartze aktiboko programa berritzaile bat izan du, SASOIAN izenekoa.**

*• El envejecimiento activo ha sido otra de las prioridades disponiendo de un programa de envejecimiento activo innovador, SASOIAN*

***• Gure adinekoen segurtasunak kezkatzen gaitu, eta horregatik jarri ditugu ke-detektagailuak etxebizitzetan.***

*• Nos preocupa la seguridad de nuestras personas mayores y por ese motivo hemos instalado detectores de humo en las viviendas.*

***• Krisi ekonomikoaren egoera ere islatu da gure herrian, eta legegintzaldi honetan Gizarte Larrialdietarako Laguntzen partida handituz joan da.***

*• La situación de crisis económica también se ha visto reflejada en nuestra localidad y durante esta legislatura se ha ido incrementado la partida de Ayudas de Emergencia social.*

***• Adikzioak prebenitzeko plana.***

*• Aprobación del plan de prevención de adicciones.*

## ELGOIBAR PAREKIDEA

### Un Elgoibar igualitario




***• Berdintasun Sailaren aurrekontua hirukoiztu egin da azken lau urteetan. Urteko aurrekontua 50.000 eurotik 150.000 eurora pasa da.***

*• Se ha triplicado el presupuesto del Departamento de Igualdad en los últimos cuatro años. El presupuesto anual ha pasado de 50.000 a 150.000 euros.*




***• Lila: emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde borrokatzeko gunea. Hilean 120 erabiltzaile bakar ditu batez beste.***

*• La Casa de las Mujeres Lila: espacio para la lucha por la igualdad de mujeres y hombres. Cuenta con una media mensual de 120 usuarias únicos.*

***• Ikastetxeetan indarkeria matxistaren prebentzioa sustatzeko hezkidetzako dirulaguntzak.***

*• Se han realizado mejoras y reparaciones en el equipamiento de los varios barrios del municipio.*

**112.000 €**

***• Berdintasunaren aldeko programa espezifikoak garatzen dituzten Elgoibarko emakume-elkarteentzako dirulaguntzen zenbatekoa 45.000 eurokoa izan da.***

*• La cuantía de las subvenciones a asociaciones de mujeres de Elgoibar que desarrollan programas específicos a favor de la igualdad ha sido de 45.000 euros.*

**45.000 €**

## EUSKARAREN EZAGUTZA, MOTIBAZIOA ETA ERABILERA SUSTATZEA, HERRITARREN HIZKUNTZA ESKUBIDEAK BERMATZEKO ETA EUSKARAREN ERABILERA AREAGOTZEKO.

***• Udaleko VI. Erabilera Plana 2018-2022, eguneroko lanean euskararen erabilera normalizatzea udalean.***

**26.200 €**

***• ESEP Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2018-2022. Planaren helburua izan da herrian euskara ikasteko eta erabiltzeko aukerak areagotzea.***

**464.000 €**

***• Euskara dirulaguntzak herritarrentzat eta herriko establezimendu eta enpresentzat.***

**67.917 €**

***• Euskara dirulaguntzak ikastetxeetan euskararen erabilera bultzatzeko.***

**67.917 €**














***• Aipatzekoak baita ere abian jarritako egitasmo berriak: Bertso Eskola, Idazle kluba, Eusliderrak, Erasmus+, Euskalgintzaren eta Kulturgintzaren diagnosia, "Haurren aurrean helduak heldu" ekimena, Aniztasuna ikasgai, Antzerkhizkuntza, Hurbiltzen, Euskararen Historia Soziala ikerketa, Elgoibarko Hizkuntza Aniztasunaren Mapa eta "Jatorri atzerritarreko herritarrak eta euskara" ikerketa lana.***

## KULTURA, UDALERRI BIZI BATEN ISLA

### Un Elgoibar igualitario



***• Kultur ekosistema indartzea, Aita Agirre kulturgunea erreferentzia-puntu gisa hartuta. Aita Agirre kulturgunea eraikita eta martxan jarrita, herriko kultura indartzen ari gara, euskarazko kultur eskaintza lehenetsiz.***

*• Potenciar el ecosistema cultural, con el centro cultural Aita Agirre como punto de referencia. Con la edificación de Aita Agirre kulturgunea y su puesta en marcha estamos potenciando y fortaleciendo la cultura de la Villa y priorizando la oferta cultural en euskera.*




***• 2021ean hiribilduaren 675. urteurrena ospatu zen, eta jarduera ugari egin ziren gure historia bizirik mantentzeko.***

*• 675 aniversario de la Villa de Elgoibar. En el ejercicio 2021 se celebró el 675 aniversario de la villa y se realizaron numerosas actividades con el fin de mantener viva nuestra historia.*




***• Turismoa Elgoibarren: turismo-plano berria, Dolmenen ibilbidea, hainbat indusketa egin dira eta elementu megalitikoen balioa nabarmendu da, Makina Erreminta Museoa...***

*• Turismo en Elgoibar: nuevo plano turístico, ruta de los Dólmenes, se han realizado distintas excavaciones y se han puesto en valor elementos megalíticos, Museo Máquina Herramienta...*

## GAZTERIA, ELGOIBARREN ETORKIZUNA

### La juventud, el futuro del Elgoibar

+ + + +




• ***Ludoteka eta Gaztelekuko zerbitzuak egokitzea.*** */ Adecuación de los servicios de Ludoteca y Gazteleku.*




• ***Hezkuntzako Mahai berria.*** */ Nueva Mesa de Educación.*




• ***Dibertsitate funtzionala duten haurren arreta hobetzeko neurriak hartu dira.***

*• Se han adoptado medidas para mejorar la atención a niños y niñas con Diversidad Funcional.*




***•Herriko jolasguneak aztertu eta egokitu ditu.*** */ Se ha realizado el estudio y adecuación de las zonas de juego de la localidad.*

• ***TREBA Gurasoak programa jarri da abian, gurasotasun positiboa lantzeko eskaintza pedagogiko***

*• Se pone en marcha el programa TREBA Gurasoak, una oferta pedagógica para trabajar la parentalidad positiva*

• ***TREBA Gazteak programa jarri da abian, gazteak ahalduntzeko eskaintza pedagogikoa sustatzeko.***

*• Se ha puesto en marcha el programa TREBA Gazteak para impulsar una oferta pedagógica de empoderamiento juvenil.*

***• Auzo Familiak proiektua jarri da abian, Euskara Sailarekin elkarlanean, euskaratik urrun dauden familiak familia euskaldunekin harremanetan jartzeko.***

*• Se ha puesto en marcha el proyecto 'Auzo Familiak', en colaboración con el Departamento de Euskera, para poner en contacto a familias alejadas del euskera con familias euskaldunes.*

• ***Gazteen emantzipazioari buruzko diagnostikoa egin da errealitatea aztertzeko, eta Elgoibarko gazteen emantzipazio-plana garatu da (2023-2027). 400 gaztek hartu dute parte.***

*• Se ha realizado un diagnóstico sobre la emancipación de la juventud para el análisis de la realidad y se ha desarrollado el plan de emancipación de la juventud de Elgoibar (2023-2027). Han participado 400 jóvenes.*

## KIROLAREN HIRIA

### Mejora de la red de servicios




• ***Olaizaga kiroldegiko igerilekuak handitzea.*** */ Ampliación de las piscinas del Polideportivo Olaizaga*




• ***Hobekuntzak Olaizaga eta Mintxeta kiroldegiko muskulazio-geletan.***

*• Mejoras en las salas de musculación del Polideportivo Olaizaga y Mintxeta.*




• ***Ur-parkea Mintxetako igerileku estali gabeetan.*** */ Parque acuático en las Piscinas Descubiertas de Mintxeta.*




• ***Skate pista handitzea.*** */ Ampliación de la Pista de Skate*




• ***Elgoibar Kirolaren Europako Hiria.*** */ Elgoibar Villa Europea del Deporte 2019.*




• ***Xake-kluba berregokitzea*** */ Readecuación del club de ajedrez.*





# Etorkizuneko Elgoibar


















# ELGOIBAR
AZKEN BERRIAK SAKELEKOAN

JASO ELGOIBARKO INFORMAZIOA **WHATSAPP BIDEZ**

RECIBE LA INFORMACIÓN DE ELGOIBAR **POR WHATSAPP**

**WHATSAPP zerbitzua abian!**
Eman izena.

